

Astoa

Astoa (*Equus asinus asinus*) da, zalantzarik gabe, gure herrialdean atzerakadarik handiena jasan duen etxe-aberea, industria-garapena eta nekazaritzako lanen mekanizazioa direla medio.

Egoera larrian dagoen galzoriko arraza autoktonotzat hartzen da.

ENAFE

Euskadiko hiru lurralde-elkartek osatzen dute.

ARASEL - ARABAKO ASTOZALEEN ELKARTEA.

Telefonoa | 945 28 50 99 | ARKAUTI

ASBIZBUEN - ENKARTERRIKO ASTOAREN BIZKAIKO ELKARTEA.

Telefonoa | 94 455 50 63 | LEZAMA

GIASEL - GIPUZKOAKO ASTOZALEEN ELKARTE.

Telefonoa | 943 08 38 88 | AZPEITIA



ENAFE FEDERAZIOA

ENKARTERRIKO ASTOA ARRAZAREN
HAZLEEN FEDERAZIOA

FEDERACIÓN DE CRIADORES DE LA RAZA
BURRO DE LAS ENCARTACIONES

EGOITZA: Lorra Koop.
Garaioltza auzoa, 23 – 48196 Lezama
BIZKAIA

Telefonoa | 94 455 50 63 |
aegia@lorra.eus
www.lorra.eus



Enkarterriko Astoa Arraza

Bizkaiko lurralderik mendebaldarrenetik datorkio izena, Enkarteritik, alegia. Euskal Autonomia Erkidegokoa eta inguru mugakideetako da. Gaur egun, EAE guztian daude asto horiek.

1996an, arraza berreskuratu, hazi eta hautatzeko lanei ekin zitzaien



SARRERA

Orain dela urte gutxi arte, isurialde kantauriarreko baserrietako nekazaritza-lanetan ohikoa zen astoa zamari eta garraio-abere bezala erabiltzea, eta oso preziatua zen bere ezaugarriengatik, meatzaritza eta basozaintzako lanetan. Horietako lan gehienak mekanizatu egin dira erabat, eta horrek astoa ia desagerrarazi egin du. Gaur egun, nekazaritzako lan xume batzuk egiteko erabiltzen dira, hala nola, baserrietara belarra edo egurra eramateko, eta euskal baserriaren irudi tradizionalaren oroigarri gisa gelditu dira. Otzanak dira, oso bizkorak, baita lagun egiteko animaliak ere.

ERABILERA ETA USTIAPEN SISTEMA

Tamaina txiki eta pisu gutxikoa eta oso gihartsua denez, bere apo txiki biribilek tendoi indartsuak eta hanka-jarrera bikaina dituztenez, ez ditu zapaltzen dituen lurrak harrotzen eta, ibiltzean, lursail maldatsuetara moldatzen da; hortaz, artzaintzarako da egokia.

Gaur egun, arraza lagun egiteko animalia bezala eta nekazaritzako lan xumeak egiteko edo artzaintzarako erabiltzen denez, astoaren batez besteko adina igotzea, 25-30 urtera arte.

Udaberria da estaltzearen sasoi naturala, apiriletik maiatzera bitartean, eta ernaldia 12 hilabetekoa da, astakumea arra bada, pixka bat luzeagoa. Titia 6 hilabeterekin kentzen zaie. Arrek asto-taldean lehiakiderik onartzen ez dutenez, oso gazte bilatzen zaie irtenbidea.



EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Iberiar Penintsulako arraza elipometriko bakarra da. Soslai zuzena du eta proportzio sublongilineoak. Otzana eta oso bizkorra da. Belarri eta apo txikiak ditu.

Ilajea: Ilaje beltza edo gaztaina-kolore ilunekoa; zuritu egiten da begien inguruan, sabelaldean, galtzarbeetan eta azpialdean. Ilajearen ezaugarritzat jotzen da mutur zuria.

Illea: Urtaroen arabera, ilean aldeak daude luzeran eta testuran: udakoa, laburra, fina eta zeta-antzekoa; negukoa, berriz, luzeagoa eta izurtuagoa. Oro har, ilea luzeagoa da belarrien barrualdean. Buztana oso behetik sortzen zaio, eta muturrean ile-sorta ugaria du.

Gorputz-adarrak: Luzera eta lodiera ertainak. Tendoi indartsuak eta hanka-jarrera bikaina.

Apoak: Apo biribil eta txikiak; oso gogorak.

Neurria: Gurutzerainoko altuera: arrak, 109 eta 123 cm bitartean; emeak, 103 eta 123 cm bitartean.

Pisua: Arraza elipometrikoa. Arrena 170 eta 210 kg bitartean; emeena, 140 eta 190 kg bitartean.